

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARTZINIEGAKO UDALA

Mugaketako administrazio espedientea

Artziniegako Udalak, 2016ko irailaren 1ean egindako bilkuran, honako hau erabaki zuen:

Lehenengoa. Santa Kolomako bide publikoa, zehazki Artziniegako 4 poligonoko 738 A, 38 B, 737 A, 26 A, 26 B eta 49 A lurzatietatik igarotzen den tarte, mugatzeko administrazio espedientea abiaraztea.

Bigarrena. Lur neurketa lanak hasteko 2016ko abenduaren 12a finkatzea, bideko tarte horretan.

Neurketa lan horiek Arabako Foru Aldundiko zerbitzu teknikoek zuzenduko dituzte, alkatea, kideak eta idazkaria bertan direla, eta goizeko 10:00etan hasiko dira.

Hirugarrena. Erabaki honen berri ematea lursail publikoaren mugakide diren jabeei eta espedientea jendaurrean jartzea, neurketa lanak hasi baino 60 egun baliodun lehenago argitara emanez ALHAOn eta lurralde historikoan zabalkunde handiena duten egunkarietako batean, bai eta udalaren iragarki taulan ere.

Espedientea jendaurrean dagoen bitartean, interesdunek Artziniegako Udalaren bulegoetan izango dute eskuragarri.

Laugarrena. Interesa duen edonori jakinaraztea bere eskubideak frogatu eta aldezteko egokitzat jotzen dituen alegazioak eta agiriak aurkez ditzakeela udal bulegoetan, neurtze lanak hasi baino hogeita egun lehenago arteko epean. Epe hori igaro eta gero, ez da onartuko ez agiririk ez alegaziorik.

Udalak dagokiona erabakiko du agirien eta gainerako frogen gainean, horiek aurkezteko epea amaitu eta mugaketa hasteko finkatutako egunaren bezpera arte, eta interesdunei jakinaraziko zaie.

Bosgarrena. Ezarritako egunean, aipatutako tokira joango dira zerbitzu teknikoak, zeinek adierazitako tarteetan bide publikoaren mugak zehaztasunez ezarri eta planoak egingo baitute, alkatearekin, kideekin eta udal idazkariarekin batera. Azken horiek dagokion akta egingo dute; bertan jasoko dira Ondasunen Arautegiak 64. artikuluan adierazitako erreferentzia guztiak eta bildutako guztiek sinatuko dute.

Gero, osoko bilkuran mugaketa ebazteko erabakia onartuko da, zeina betearazlea izango baita. Horren aurka egin daiteke administrazioarekiko auzien bidean.

Mugaketa onartzeko erabakia irmo egiten denean, mugarritze lanak hasiko dira, interesdunak tartean direla.

Seigarrena. Erabaki honen aurka ezin izango da errekurtsorik jarri, izapide hutsa baino ez delako; edonola ere, egokitzat jotzen diren ekintzak gauzatu ahal izango dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Artziniega, 2016ko irailaren 12a

Alkatea

IÑIGO GÓMEZ UNZUETA